



'HERRI BAT, BI KONTINENTE' AURKEZTERA

Ibarrako Txelo Romeo alkatea eta Itziar Jauregi zinegotzia Ekuadorren daude larunbataz geroztik 6

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza



Asteazkena
2010-03-31

VIII. URTEA 1966. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

«Beraiekin elkarbiziz disfrutatzea eta ikastea da gure helburua»

VILLABONA Onditz Jauregi eta Luisa Montecelo gazteak Kenian daude, Masaiekin elkarbizitzen

'AFRIKATXAKANAM' 'Ama Afrika' izan zen lehen bidaiaren izena, oraingoan Wolof hizkuntza aukeratu dute 4-5



Billabonatarrek Kenian daude une honetan, Sekenan izena duen herrian, Masaiekin elkarbizitzen. HITZA



Jokin Ansorena eta Andoni Iturzaeta. I.GARCIA

Udaberria ere kultur ekitaldiz betea egongo da

TOLOSA Mokoloren omenaldia eta Ken Zazpi taldearen kontzertua nabarmendu dituzte 3




bidali
opor
hauetako
argazkiak!

NORA
BIDALI?

tolosaldean@tolosaldekohitza.info helbide elektronikora edo HITZAren Tolosako edo Leitzako egoitzetara Apirilaren 6tik 28ra

HITZA aste santuko argazki lehiaketa



1. Saria

2. Saria

3. Saria



Marta Alonsok bi domina lortu zituen. HITZA

Marta Alonso Espainiako txapeldun eta txapeldunorde

Igeriketa » Tximeleta eran 50 eta 100 metroko proban lortu zituen dominak; Tolosaldea IKT «oso ondo» aritu zen.

ERREDAKZIOA

Iragan asteburuan junior mailako Neguko Espainiako Igeriketa Txapelketa jokatu zuten Pontevedran (Galizia), eta Tolosaldea Igeriketa Kirol Taldeko ordezkariak maila bikaina erakutsi zuten. Batez ere, Marta Alonso gailendu zen, txapeldun domina lortu baitzuen.

Tximeleta eran 50 metroko distantzia 29'54ko denboran egin zuen, Espainiako txapeldun berria delarik, eta zilarra lortu zuen tximeleta eran 100 metroko proban, 1'06ko denbora eginez. Emaizta «bikaina», beraz, Alonsorentzat.

Gainerako taldekideak ere «oso ondo» aritu ziren. Txapelketarako sailkatze hutsa lorpena zen eurentzat, izan ere, Tolosaldea IKTko zortzi igerilariek denbora «bikaina» egin beharra izan zuten Galizian lehiatu ahal izateko.

Eneka Muñagorriren lana azpimarratu beharra dago: 100 metro libre eran 1'01 egin zuen eta 200 metrokoan 2'12. Olaia Cuadrado ere «fin» aritu zen, 100 metro biz-

karrezko eran 1'12 eginez eta 200 metro bizkarrezkoan 2'33.

Mutilen lana, «ona»

Tolosaldea IKTko mutilei dago-kenez, Josu Carrera «ondo» aritu zen, 100 metro libre eran 54 segundoko denbora egin zuen, eta 400 estilokoan 4'51. Jokin Otaegik 200 librekoan parte hartu zuen eta 100 metro libre eran 55 segundoko denbora egin zuen. Iñaki Carrera 400 metro libre eran aritu zen eta baita estilo eran, «proba gogorrik dira eta gutxi lortzen dute bertarako sailkatzeko gutxieneko denbora, beraz, bertan aritzea soilik lorpen handia da». 4'24 eta 5'00 izan ziren bere denborak. Bular-igeriketakoek ez zuten egun ona izan; Ibon Sotok, esaterako, 50 metrokoa 32 segundokoan egin zuen eta 1'11ko denbora 100 metrokoan.

Taldean ere marka onak

Taldeakoko Tolosaldekoek gizonen 4x100 errelebu proban libre eran eta estiloan hartu zuten parte. 50 metroko igerilekua zela kontuan hartuta, marka politik ezarri zituzten.

Bestalde, aipatzekoa da, Galizian jokatu zen txapelketan azken teknologiadun bainujantziak ez zituztela erabili lehen aldiz, beraz, hori ere nabaritu zuten igerilariek.



«Indarberrituta aterako gara krisitik»

EKONOMIA » Markel Olanok Gipuzkoako Ahalduen Nagusia Apatza Erreka industrigunean izan zen hereneun. Tolosaldea Garatzen antolatuta Krisiaren Aurkako Plana 2010 aurkeztu ziren bertaratu ziren enpresa munduko herritarrei. Olanok Gipuzkoa sendo ikusten duela esan zuen, «lurralde industriala delako, eta egoera larria izan ere errazago eutsi ahalko dio». Dena den krisiari aurre egiteko aurrekontua zehaztu

du Gipuzkoako Foru Aldundiak 2010erako, 100 milioi, hain zuzen. Zatik handiena (40 milioi) azpiegiturak —batez ere errepede— egiteko izango da; enpresentzako laguntzetarako 36 milioi, behar bereziak dituzten kolektiboentzat 14 milioi eta zientzia teknologia eta berrikuntzarako 10 milioi. Halaber, lehiakortasuna eta elkartasuna direla krisitik irteko bi zutabeak adierazi zuen Markel Olanok. i.t.

Ferran Latorre gabe jarraitu beharko dute

Mendia » Eskuineko hankan lotailu-haustura du eroriko baten ondorioz; apirilaren 10erako espero dute gailurra egitea.

ERREDAKZIOA

Annappurnaren oinarriko kanpalekuan daude une honetan Edurne Pasaban eta bere espediziokideak. Baina, ez guztiak, izan ere, Ferran Latorrek utzi beharra izan du abentura, hirugarren kanpalekuko jeisten ari zirela eroriko handi bat izan baitzuen, eta lotailu-haustura du eskuineko hankan.

Mendigoizale kataluniarra atzo iritsi zen Bartzelonara. «Penaturik» dagoela adierazi du, espedizioa modu horretan utzi beharra izan duelako. «Penaturik eta tris-

te» geratu dira, halaber, bere hutsunearrekin taldekideak, baina, «arazoak arazo aurrera egiteko gogo eta ilusioz» daudela azaldu du Pasabanek; «Ferranek etxetik lagundu eta animatuko gaitu».

Korearra gaur iritsiko da

Orain arte Annappurnako espedizio bakarra izan dira, baina jadanik ez daude bakarrik, eta igandean, gainera, Oh Eun-sun korearraren taldekideak ailegatu ziren. Bera gaur iritsiko da bere azken zortzimilakoari ekiteko helburuz. Dena den, Pasabanek azaltzen duenez, beraiek beraiean segiko dute.

Oinarriko kanpalekuan atsedean hartu ondoren, indarberrituri daude berriro. Gailurrera begira jarrita daude, eta guztia aurrerazi bezala badoa, apirilaren 10erako egitea espero dute.



Pasaban eta taldekideak bigarren kanpalekura bidean. RTVE/AL FILO DE LO IMPOSIBLE/

TAKeko neskak bigarren geratu dira Gipuzkoako Batelen Ligan

Arrauna » Apirilaren 10 eta 11n Gipuzkoako Txapelketa izango da Pasai San Pedron; maila ona ematea espero dute.

ERREDAKZIOA

Segundo bakarrenegatik ez zuten lortu TAKeko jubenil/senior mailako neskek bandera igandean Donostian. Zumaiaiko B sartu zen euren aurretik, eta ondorioz, beraiek eraman zuten altxor preziatua. Azken jardunaldi horrekin amaitu zen aurtengo Gipuzkoako Batel Liga.

Guztira, 5 kategoriatan hartu dute parte Tolosaldeko Arraun Klubekoek. Infantil mutilak bosgarren sailkatu ziren; kadete mutilak zazpigarren egin zuten; jubenilek, berriz, bigarren eta bosgarren egin zuten, eta gazte mailako neskek ere bigarren egin zuten.

Txapelketetara begira

Sabino Alijostes TAKeko ordezkaria gustura azaldu da emaitza horiekin, baina dena den, Gipuzkoako eta Euskadiko Txapelketetara begira daudela adierazi du. «Iaz Gipuzkoakoan bandera bat lortu genuen eta Euskadikoan beste hiru; aurren ere maila onean aritzea espero dugu». Gipuzkoako Txapelketa apirilaren 10 eta 11n izango da, Pasai San Pedron.

DISEINATZAILEAK (LP2010-DIS erreferentzia)

BERRIA egunkariak, Diseinu eta Publizitate Sailetan ordezkapenak egiteko lan poltsa osatu nahi du.

Eskatzen da:

- Diseinu grafikoko ikasketak izatea.
- Diseinu grafikoko esperientzia izatea.

Baloratuko da:

- FreeHand, PhotoShop eta QuarkXPress programak erabiltzen jakitea.
- Egutegi eta ordutegi malgutasuna izatea.

Interesatuta bazaude, bidali curriculum vitæa gizabaliabideak@jarduna.net helbide elektronikora, erreferentzia zehaztuz, **apirilaren 15a** baino lehen.

Mokolori omenaldia, Ken Zazpi, eta Alos Quartet, aipagarrienak

Tolosa » Iturzaeta kultur zinegotziak hiru ikuskizun horiek nabarmendu ditu udaberriko kultur egitarauaren aurkezpenean.

IMANOL GARCIA

Udaberriko kultur egitarauaren aurkezpena egin zuten atzo Andoni Iturzaeta kultur zinegotziak eta Jokin Ansorena kultur teknikariak. «Beti saiatu izan garen bezala gure helburua oreka topatzea da, bai adin esparruaren arabera eta bai ikuskizun moten arabera», azaldu zuen Iturzaetak. Kultur Departamenduak antolatuta dituzten artean bi ikuskizun aipatu zituen bereziki: «Izen handiena izan dezakeena Ken Zazpiren kontzertua izango da. Bestetik Alos Quartet taldean Xabier Zeberio tolosarra aritzen da».

Horiez gain bereziki aipatu zuen Iñaki Odriozola *Mokolo* pailazoari egingo dioten omenaldia: «Hainbat pailazok antolatu dute eta seguru hunkigarria izango dela ekitaldia». Dagoeneko omenaldia-erentzako sarreak agortuta daude. Bestalde, aipatzekoa da ere Ara-



Jokin Ansorenak eta Andoni Iturzaetak Gazte Topagunean egin zuten aurkezpena. I. GARCIA

goiko Titiriteros de Binefar taldeak *Azeriaren Alegia* txotxongilo emanaldia euskaraz emango dutela.

Topic-ekin elkarlana

Ansorenak, bere aldetik, helburua «kalitatearen, barietatearen eta ekonomiaren arteko oreka lor-

itzea» izan dela azaldu du, «ahalik eta egitarau aberatsena egiteko». Astebururo zerbait programatuta dagoela nabarmendu du Ansorenak, «kultura departamendutik edo Topic-etik antolatuta. Hori gertatzeko erronka da, Topic-ekin lotuta eta koordinatuta joan behar baitugu eta lortzen ari gara».

Topic gune berriak «gero eta gauza gehiago programatzen ditu eta hori osagarria da kultur departamenduak antolatzen dituzten ekintza ezberdinekin», azaldu du Iturzaetak. «Espero dugu luzarora horrela izatea. Topic-ek hainbat gauza antolatzen ditu bere kabuz eta Udalak Topic erabiltzen

du ere ekintzak antolatzeko. Erdi tamainako espazio hori behar genuen, orain badugu eta erabilera ematen zaio Kultur Departamentutik».

Bonu bereziak

Zinemarekin hasitako bonuen ekimenarekin ere jarraituko dute kultur egitarauari dagokionez. Udaberrian eskaintza hobetu egin da eta bi ikuskizun ordainduta lautara joan daiteke. *Arrastoa*, *XL Town* eta *Euskarazetamol* antzezlanak eta Alos Quartet taldearen kontzertua dira lau aukeratuak. Aurreko denboraldian, hiru ordainduta lau ikustera joan zitezkeen. Alos Quartet-erekin ere eskaintza berezia egingo da, beste batzuetan egin den bezala, eta Musika Eskolako ikasleek bi sarrera hartu ahalko dute baten prezioan.

Zinemaren inguruan «bonuen apustua egonkorta egin da eta sistema oso arrakastatsutzat jotzen dugu», azaldu du Iturzaetak. «Baina horretaz gain, aukera dugunetan gustatzen zaigu bonu bereziak ateratzea. Orain Aste Santuari begira, lehengo urtean bezala, bonu bereziak atera dira». Horrela, hilduei zuzendutako sei film ikusi ahalko dira 7 euroren truke: *Un hombre soltero*, *An education*, *Shutter island*, *Solo Dios lo sabe*, *Green Zone* eta *Precious*.

Erakusketek ere tarte zabala izango dute Udaberriko egitarauan. Bestalde, datorren hiruhilekoan zenbait jardunaldi berezi izango dira: apirilaren Naturaldia eta maiatzaren Kutxa Kultur Zirkuitua eta Musikaria.

» EGITARAUA

Apirila

- **'Arrastoa'**. Txalo Produzioak taldearen antzezlan. Hilaren 16an, Leidorren, 20:30ean.
- **Moloko, eskerrik asko**. Hainbat pailazok Iñaki Odriozolari antolatutako omenaldia. Hilaren 17an, Leidorren, 12:00etan.
- **Ken Zazpi**. 'Ken Zazpi urte' kontzertua emango du hilaren 23an, Leidorren, 20:30ean.
- **'The Con Harold Pinter y Dario Fo'**. Teatro Estudio taldearen antzezlan. Hilaren 23an, Topic-en, 20:00etan.
- **'El Patito Feo'**. A la Sombrita taldearen txotxongilo emanaldia. Hilaren 25an, Topic-en, 12:30ean.
- **'XL Town'**. Pikor Teatro taldearen antzezlan. Hilaren 30ean, Leidorren, 20:30ean.

Maiatza

- **'Magic of the Dance'**. Dantza ikuskizuna. Hilaren 5ean, Leidorren, 20:30ean.
- **Nacho Vegas**. Kontzertua emango du hilaren 7an, Leidorren, 21:00etan. Kutxa Kultur Zirkuituaren baitan.
- **'Toutouie, una aventura submarina'**. Cie. Theatropiques taldearen txotxongilo emanaldia. Hilaren 15ean, Topic-en, 18:00etan.
- **'Euskarazetamol'**. Ez Dok Hiru

- bikoteatroaren antzezlan. Hilaren 21ean, Topic-en, 20:30ean.
- **'Piedra a piedra'**. L'home dibuixat-en emanaldia. Hilaren 23an, Topic-en, 12:30ean.
- **Alos Quartet**. '10 tanta' diskoaren kontzertua. Hilaren 28an, Topic-en, 20:30ean.

Ekaina

- **Kultur Etxeko Dantza Tailerra**.

- Tailerretako ikasleen dantza emanaldia. Hilaren 12an, Leidorren, 18:00etan.
- **'Tres sombreros de copa'**. Kultur Etxeko Antzerki Tailerraren antzezlan. Hilaren 18an, Leidorren, 18:00etan.
- **'Azeriaren Alegia'**. Titiriteros de Binefar taldearen txotxongilo emanaldia. Hilaren 19an, Topic-en, 18:00etan.

Erakusketak

- **'Aurrez Aurre: emakumeak protagonista'**. Aranburu jauregian, apirilaren 10a arte.
- **Txinako Txotxongiloetako Perzsonaia Tradizionalak**. Topic-en, maiatzaren 30a arte.
- **Nisa Goiburua**. 'Y aun asi, somos naturaleza' erakusketa Aranburu Jauregian, apirilaren 16tik ekainaren 12ra.

- **Mikel Telleria**. GKO galerian, apirilaren 16tik maiatzaren 1era.
- **Adolfo Tannenbaum**. Aranburu jauregian, apirilaren 23tik ekainaren 12ra.
- **Carnet de Voyage. Vuelta de Chile**. GKO galerian, maiatzaren 7tik ekainaren 13ra.
- **Kultur tailerretako ikasleak**. Aranburu Jauregian, ekainaren 18tik uztailaren 3ra.
- **Pixel Pancho**. GKO galerian, ekainaren 19tik uztailaren 24ra.

Besterik

- **Paperezko Antzerki Tailerra**. Apirilaren 6tik 9ra, Topic-en.
- **Zientzialari zoroak**. Apirilaren 9an, 12:00etan, Errota Haur Liburutegian.
- **Naturaldia**. Apirilaren 16tik 22ra.
- **Udaberri Txiki eta Esbart Sant Martiko haur dantzariak**. Apirilaren 24ean.
- **Kutxa Kultur Zirkuitua**. Maiatzaren 7, 8 eta 9an.
- **Udaberri Dantza Taldea eta Alacanteko Grup de Dances D'I-bi**. Maiatzaren 15ean.
- **Musikaria**. Maiatzaren 24tik 30era.
- **Miriam Mendoza**. Ipuin kontalaria apirilaren 15ean eta maiatzaren 6an, Errota Haur Liburutegiko Ipuin Txokoa.



Ken Zazpi bere azken diskoaren, *Ken Zazpi urte*, kontzertua emango du apirilaren 23an. HITZA

MUNDUKO BIDAIARIAK



Gizartea » Onditz Jauregi eta Luisa Montecelo Afrika ekialdea ari dira zeharkatzen iparraldetik hegoaldera euren furgonetaren laguntzarekin.

INIGO TERRADILLOS

«Saiatu arte ez duzu inoiz jakingo zenbaterainoko gai zaren». Egia biribila da, baina askotan, nahiago izaten dugu gure mugak ederki ezagutzen ditugula pentsatzea, ahalegina egiteko abentura horretan murgildu baino. Nekeza izan baitaiteke saiatzea, gauza berriak ezagutzea edota errutinatik aldentzea. Ez guztientzat, noski. Ez behintzat Onditz Jauregi eta Luisa Montecelo billabonatarrentzat. Orain bi urte Afrikan bidaia luze bat egin zuten, eta «hango bizipenek maiteminduta» lurralde berean bigarren abentura ari dira egiten. *Ama Afrika* izeneko lehen bidaiaeren lekukoa *Afrikatxakanam* (Senegalgo Wolof hizkuntzan al-darte espresioari egiten dio erreferentzia) izenekoak hartu du.

Prestaketa ugariaren ostean, 2009ko abenduaren lehen jarri zuten martxan furgoneta. Euskal Herriatik Frantziara, handik Italiara, eta Genovatik igaro ziren bar-kuz Afrika ipar-ekialdera, Tuniserara, hain zuzen. Hortxe hasi zen euren benetako abentura. 15 eguneko egonaldian lurralde txikia baina altxorrez bete delako Tunis deskubritu zuten.

Libiara igaro ziren gero, abenduaren erdialdera. «Kostata» igaro ere, izan ere, Tunis bezala, pape-rekin hainbat traba izan zituzten. Han ere 15 eguneko egon ziren, tartekako visa baino ez baitzuten, beraz, lurraldea zeharkatzeko «nahiko bixi» ibili beharra izan zuten. Egipton ia hilabete egin zuten

gero. Turismoak bertan duen indarrak ederki jabetu ziren, batez ere, prezioak beste lurraldeekin konparatuz alde handia dutela ikusita. Egipto atzean utzi, eta Sudanera iritsi ziren «ferry afrikar-afrika» batean, eta bi lurraldeen arteko muga igarotzeko era bakarra, Nasser lakua zeharkatuz. Hiru asteko egonaldia egin zuten bertan.

Afrika «koloretsu eta bizira»

Hegoalderantz kilometroak eginez Etiopiarra ailegatu ziren, lurralde musulmanak atzean utziz eta Afrika «koloretsu eta bizian» sartuz. Hilabete baino gehiago egon ziren Etiopian, eta une honean Kenian daude, Sekenani izeneko herrian, Masaiekin elkarbizituz.

Lurralde, jende, kultura eta tradizio desberdinak ari dira ezagutzen, eta bidaiak elkartzunezko helburua ere baduen, eskola eta osasun material ugari ari dira banatzen beharra dutenen artean.

Abenturaren erdialdera baino ez dira iritsi. Badute, beraz, munduko bidaiari hauek pasadizo, bizipen, harreman... berrietan ikasi eta gozatzeko astia. Saiatzea baita kontua.

» JARRAIPENA

■ www.afrikatxakanam.blogspot.com. Euren abenturak Interneteko helbide horretan jarrai daitezke. Argazki ugari ikusteaz gain, iritziak ere sar daitezke.



Tunis izan zen Afrikako abenturako lehen lurraldea. Abenduan izan ziren bertan.



Egipton ikuspegi zoragarriez gozatu ahal izan dute.

«Inongo unibertsitatetan ikasten ez diren bizi baloreak ikastea da gure bidaiaren helburua»

LUISA MONTECELO ETA ONDITZ JAUREGI » Bidaiariak

Villabona » Jendea eta leku berriak ezagutzeko helburuz ekin zioten 'Afrikatxakanam' izeneko bigarren abenturari.

I. TERRADILLOS

Afrikan zehar egiten duten bigarren bidaia da Onditz Jauregi eta Luisa Montecelo billabonatarrenztzat. «Izugarría eta ahaztezina» ari da izaten esperientzia berri hau ere. Kenian, Masaiekin daudela, hartu dute tartea gure galderei erantzuteko.

Nolatan horrelako abentura bat?

Orain bi urte Afrika mendebaldeko bisitatu genuen, zortzi hilabetez furgoneta zahar batekin, lurralde ezberdinetan bidaiatuz eta bertako jendearekin nahastuz. Bidaia guztiz arrakastatsua izan zen, oso gustura sentitu ginen, garen bezelakoak izateagatik maitatuak izan ginelako, eta ez gugatik zerbait espero zutelako. Eraman genuen material urriari esker zenbait truke egiteko aukera izan genuen, beraiantzat beharrezko ziren gauzeekin eta hori ahaztezina izan zen guretzat. Euskal Herrira bueltatu ginenetik Afrikara bueltatzearekin amesten jarraitzen genuen.

Eta nola prestatu duzue bidaia?

Ez da erraza horrelako bidaia luze bati ekitea Euskal Herrian ditugun lotura pilekin. Bi urte hauetan gogorlan egin ondoren beste abentura bat hasteko prestatu gara, eta Afrikara ekartzeko material piloa ere bildu dugu. Argi genuen gauza bakarra zen Afrikako lurralde ezberdinak ezagutu nahi genituela, ez genituela aurrekoan bisitatutako lurraldeak errepikatu nahi. Baina horik aurrera ez dugu askorik



HITZA

antolatatu zeren ezagunek esaten zigenaren arabera ez omen ginen Sudanetik pasako errepideen egoera dela eta! [kar, kar]. Dena den, etxetik atera aurretik gauza asko prestatu arren Afrikak beti harrituko zaitu! Gainera, bertan bidaiatzea erraza da, baino ez gurea bezalako aurrekontu murriztarekin. Bidaia luze bat egitean ezin da guztiagatik eskatzen dutena ordaindu, ezta behar diren gauza guztiak diru truke lortu ere. Batzuetan pixka bat nekagarria den arren, posible da diru gutxiarekin bidaiatzea. **Zein da bidaiaren helburua, zer bilatzen duzue?**

Egia esan, gure bidaia edo abenturak ez du helburu zehatzik, lurralde eta kultura ezberdinak ezagutzea maite dugu, jende ezberdinarekin nahastu eta beraien elkarbizitza disfrutatu eta ikastea! Inongo unibertsitatetan ikasten ez diren bizi baloreak ikastea, alegia.

Nolako esperientzia ari da izaten?

Esperientzia nola ez ederra. Baina

batzuetan gogorra eta nekagarria. Egunak oso biziak dira, egunero bizipen pilo bat, abenturak, pasadizoak, arazoak, erabakiak hartu beharra... Egunak 24 ordu baino, badirudi Afrikan 48 dituela! Askotan iluntzean, oheratu aurretik egunean zehar gertatu zaizkigun gauza guztiak gogoratzen hasten garenean gure artean harrituta gertatzen gara gauza ugari bizitu ditugulako. «Nola da posible? Hori ere gaur gertatu al zaigu? Edo akaso atzo zen?» [kar, kar]. Baina egunero oztopotxoegi garrantzi gehiegi eman gabe, esperientzia ikaragarria ari da izaten, errepika ezina! **Aurreko bidaiarekin ba al du antzekotasunik?**

Ez du aurrekoan egin genuenarekin zerikusirik, ekialdeko lurralde hauetan aspaldi hasi baitzen turismoa eta nola ez safaria! Jende piloa dago Afrikako zonalde honetara etortzen dena Egiptotik Hegoafrikaraino iristeko helburu bakarrekin edota alderantziz, Hegoafrikatik Egiptoraino. Baina,

hauek bultzatzen duten turismo mota ez da guretzat egokiena. Gu bihotzez bidaiariak sentitzen gara eta bertako benetako jendearekin elkarbizitza nahi dugu. Baina nahiko zaila egiten ari zaigu hemengoek gu, hau da, txuriak oso aberatsak garelako uste baitute, eta Afrikara dirua banatzera etorri garelako pentsatzen dute. Ziur gaude jende askok lehen horixe egin duela eta horregatik, orain denek gizon txuria ikusi ordurako «Give me! Give me!» esaten digute.

Materiala ere eramane duzue.

Material ezberdin piloa ekarri dugu: eskolako materiala, haurrentzako arropa, oinetakoak, gizekoentzako elastikoak, aterkiak, sendaketetarako materiala, haurrentzako esnea, hortzetako eskuilak, pasta mordoa... Ez da batera erraza izan banaketa antolatzea zeren denek eskatu egiten dute eta ezin dugu orain arteko turismo arduragabeak egin duen min guztia handitzen jarraitu. Halaber, ekarri dugun material guztia inguruko jendeak eman digu, eta ezin dugu ahaztu jende horrek gure gure jarri duen konfidantza.

Zer izan da orain arte bizitu duzuen gauzarik politena?

Ezinezkoa egiten zaigu gauza polit bakar bat aipatzea. Oso egoera ezberdinetan egon gara, eta bizipen polit ugari ditugu gordeta gure oroimenean. Sudanen, esaterako, eskola publiko bat bisitatu genuen eta eskolako material piloa bertan utzi genuenean bertako zuzendariak bihotzez nola eman zizkigun eskerrak; edota eskola bereko hauek kaxa barruetan zer ote zegoen jakin gabe ze irripartsu lagundu ziguten kaxa astun haiek furgonetako bakatik jeisten beren ikasketetan lagunduko zien zerbait izango

zenaren kuriositatez; edota Etiopian geundela Gonder herritik kanumezurtzekin lan egiten duen herriko talde batek ze sorpresa hartu zuen euren ume guztiak elastiakoak eta oinetakoak izango zituztela ikusita; edota Etiopian baita ere euria barra barra ari zuen egun batean karretera ixkinetik oinez zihon emakume bati furgonetatik jeitsi eta aterki bat eman genion egunean nola begiratzen zuen zerrura «Aleluya» esanez eta begiak malkoz beterik; edota Keniako emakume batek nola eramane gintuen igande batean bera partaite zen eliza protestantero eta nola ikusi genituen bertako emakumeak besoak zabalik zerura begira beren jainkoari erreguka, beren sentimendu guztiak bertan jarrita, asko malkotan blai, trantzean egongo balira bezelaxe. Askok dira.

Eta zein gogorrena?

Orain dela egun gutxi Kenian sartu ginen, Etiopiatik. Eta muga pasa ordurako dau den lehen 500 kilometro oso karretera kaxkarrean egin ditugu, 6 egun behar izan ditugu distantzi hiru egiteko eta zenbait unetan energiagaz tope joan garen arren beste batzuetan nahiko lur jota eta gaizki pasatu dugu, batez ere furgoneta arazoak ematen hasi zenean. Izan ere, hemen autoa konpontzea edo han ez da gauza bera. Furgoneta hondatu zaigun mementoetan asko larritu gara, baina nola jokatu jakin beharra daukazu, erabaki azkarrak hartuz. Hala ere, arazoak nahiko erraz konpontzeko gai izan ginen, keniarren laguntzarekin.

Orain Kenian zaudete, nora joateko asmoa duzue?

Une honetan Masaiekin gaude Kenian. Hemendik, Victoria laku inguruko herrixka batzuk bisitatzea joango gara, eta gero Ugandara. Handik, ziurrenik Ruanda eta Tanzania, ondoren auskalo! Mapa oso handia da eta lurralde interesgarri piloa ditugu inguruan. Gure asmoen arabera, uztaierako bueltatuko gara etxera, eguzkiaren epeltasunera badaezpada ere. [kar, kar] Baina, hori ere auskalo!



Keniako ikastetxe batean materiala banatzen gatzetxoaren artean.



Milika kilometro ari dira egiten euren furgoneta zahharrekin. Arozotxo batzuk ere izan dituzte.

Eraikin dotzionala da aurtengo aurrekontuen «gakoa»

Ibarra » Udalaren hitzetan eraikinak «gobernu taldeak gizarte-arretaren alde egiten duen apustua» islatzen du.

ERREDAKZIOA

Ibarrako Udalak 2010 urtean zehar garatuko duen inbertsio-politikaren aurrekontu-sail nagusienetako bat udalerrian balio anitzeko eraikin dotzional bat eraikitzeko baliatuko dutela argitu nahi izan du. «Horrek argi uzten du gobernu taldeak herritarren gizarte-beharrei erantzuteko behar dituen baliabideak sortzeko duen konpromisoa», argitu du udalak ohar baten bidez.

Proiektu honek 2.080.863 euroko aurrekontu-saila izango du, baina ez da aurtengatik garatuko duten hirigintza-ekintza bakarra. Izan ere, 254.000 euroko kostua duen San Inazio auzoko zubia edo argiztapen publikoaren berrikuntza (65.000 euro) egitea ere aurreikusituta dute.

Beste esku-hartze batzuren berri ere eman du Udalak: 11. J.U.-ko (Jarduketa Unitatea) proiektuen erredakzioa (58.000 euro) eta irisgarritasun proiektuen erredakzioa bideratutako beste 20.000 euro. «Gainerako aurrekontu-sailak informatika-ekipoak, bibliografia fondoak edo obra eta zerbitzu-erako material inbentariagarria erosteko erabiliko dira», argitu du.

Inbertsioen atala

Horiek horrela, inbertsioen atalean balio anitzeko eraikin dotzionalaren eraikuntzak izango du garrantzia eta «gobernu taldeak gizarte-arretaren alde egiten duen apustuari zor zaio hori».

Ildo horretatik, Ezker Batua alderdiak zorpetze hau salatuz zuela ere nabarmendu dute udal arduradunek, «bere aburuz beste alternatiba bat zegoelako». Horri erantzunez, Txelo Romeo alkateak gogora ekarri nahi du «kritika horiek ez dituztela aipatzen udal eskumeneko den Zahar-Etxearen tokialdaketak sortuko litzuzkeen gatzak».



Beheko Biden egingo dute eraikina. R. CALVO

tuak; ezta ere Gipuzkoako Foru Aldundiak bere gain hartu beharko lukeen Egunekeko Zentroaren sorrerarenak.

Zentzu honetan, «Eusko Jaurlaritzak 300 euro eskatzen zizkigun Zahar-Etxera eta Egunekeko Zentrorara bideratutako espaziotako metro karratu bakoitzeko, eta gainera, Udalak, dohainik eman behar zuten lurra», adierazi du.

Romeo: «Gure zorpetze maila Gipuzkoako udaletxe askotakoa baino baxuagoa da»

EBk aipatzen duen alternatibak, gainera, «kostu bat zakarren udal-kutxarako» izan ere, «Udalak ordaindu beharko litzuzkeen desjabetzeen bidez egin beharko litzuzkeen lurren eskuratzeko».

Hori guztia kontutan hartuz, inbertsioa gobernu taldeak egiteko asmoa duenaren parekoa izango litzateke, «ezberdintasun bakarra, azken kasu honetan Udalak lurraren jabetza mantentzen duela da».

Inguruko lursaila salgai jartzeko aukera

Gainera, Gobernu-batzordea handik gertu aurkitzen den lursail bat salmentan jartzeko aukera lantzen ari da, non sei etxebizitza tasatu eraikiko diren, «udalerriko gizarte-eskaera estaltzen lagunduz».

Arrazoi horiek direla medio, alkateak ziurtatzen du ez dituela ulertzen «bat-bateko akusazioak, proiektu hau 2004 urtekoa baita», eta ezta gehiegizko zorpetzearen

inguruen eginiko kritikak. Horri jarraiki, «gure zorpetze maila Gipuzkoako udaletxe askotakoa baino baxuagoa da eta ibartarren bizi kalitatea hobetzeko ekimen ezberdinak sustatzeko baldintzak eskura ditugu». «Egoera konplexu honetan izan behar du, gainera, udaletxeek erreakzionatu eta lanpostuak sortzeko dugun potentziala erakutsi behar dugun unea, Ibarren 80. hamarkada amaieran eta 90. hamarkadan zehar egin izan dugun bezala», dio alkateak.

Bere aburuz «epe hori ekonomikoki oso zaila izan bazen ere, Eusko Jaurlaritzak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta eskualdeko udalek inbertsio ahalegin ausarta egin zuten gaur egun arrakastatsua den eskualde eremu industrial bat sortzeko».

Txelo Romeoren hitzetan, «Ezker Batuko Paca Sanchezek bezala pentsatu izan balitz, Ibarrek ez luke gaur egun duen jarduera ekonomikoki garrantzitsua izango, eta guretzat arto egoteko moduko ezaugarria da hori».

Alkateak, era berean, «Gobernu-batzordea minduta sentitzen da EBko ordezkariaren jarrera ez-korreakin eta bere kritika sunsitzailak lankidetzeta eta ulermenezko jarrera batera aldatu ditzan gonbidatzen du, udal bizitza aberastu dezaketan proposamenak egin ditzan», esan du.

«Paca Sanchez gobernu taldean hartzen diren erabakiek ados ez badago, Hirigintza Batzordeko lehendakari eta alderdiak batera utzi beharko luke, ez baita bertako buru», gaineratzen du.

Udaleko arduradunak Ekuadorren daude

Ibarra » Txelo Romeo alkatea eta Itziar Jauregi zinegotzia senidetutako herrian daude larunbatz geroztik.

ERREDAKZIOA

Txelo Romeo Ibarrako alkateak eta Itziar Jauregi Euskara eta Hezkuntza zinegotziak bisita instituzionala ari dira egiten Ekuadorren aurkitzen den Ibarra izeneko udalerrian pasa den larunbatz geroztik. Izan ere, Ibarra eta Ekuadorko izen bereko udalerria senidetuta daude.

Bertan, *Herri bat, bi kontinente* izeneko liburua aurkeztuko dute eta udal ordezkariekin elkarrizketatuko dira. Senidetu zirenetik bi udalerririk elkarrekin garatzen dituzten jardueren baitan aurkitzen da bisita hau. Bidaia honetako egitarauaren barruan, Ibarrako Udalak finantzatutako proiektuak garatzen ari diren tokietara ere bisita egitea jasotzen da.

Bidaia instituzionala Quiton hasiko da. Bertan Romeo eta Jauregi Ekuadorko Kanpo-Kantzilertza joango dira ekitaldi ofizial batean *Herri bat, bi kontinente* argitalpena aurkezteko. Liburu hau udalerririk

gipuzkoarrak finantzatu du senidetza egitarauaren baitan. Gaztelaniaz, euskaraz eta ingelesez argitaratu dute eta izen bereko bi udalerririk hauei buruzko informazio oparoa biltzen du, kultur aniztasunaren interesa duten pertsona guzientzat baliozua suertatzen delarik.

Ondoren, liburu Ekuadorreko Ibarren ere aurkeztuko dute eta alkatea eta Euskara eta Hezkuntza zinegotzia bertako alkatearekin eta beste udal ordezkari batzuekin bilduko dira herri honetako bizi duen errealitateaz ezagutu eta izen bereko bi herrien arteko harreman bizi sustatzeko asmoz.

Bidaia honen kostua Romeok eta Jauregik hartu dute euren gain pertsonalki, eta Ibarrako Udalak finantzatuta garatzen ari diren beste proiektu batzuk ere bisitatuko dituzte udalerririk ezberdinetan. Udal ordezkariak, zehazki, Baba, Guayaquil eta Santa Rosara joango dira Misio Taldea leku hauetan sustatzen ari diren tokietara ere bisita egitea jasotzen da.

Bidaia instituzionala Quiton hasiko da. Bertan Romeo eta Jauregi Ekuadorko Kanpo-Kantzilertza joango dira ekitaldi ofizial batean *Herri bat, bi kontinente* argitalpena aurkezteko. Liburu hau udalerririk



Jende ugari eguraldi onari esker

IBARRA » Neguko eguraldia nagusitu eta gero, Langostino Moto Kultur Elkarteak azkenean lortu dute udaberri giroko bira bat egitea. Igandean izan zen eta jende asko bildu zen «eguraldi onak animatuta». Datorren iteera apirilaren 25ean egingo dutela ere aurreratu dute. HITZA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan
DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

Atzo aurkeztu zuten Promozioko Eskuz Banakako Txapelketa

Pilota » Mikel Olaetxea lizartzarrak aurrera jarraitu ahal izateko larunbatean Leizaren aurkako partida irabazi beharko du.

ERREDAKZIOA

Atzo eguerdian aurkeztu zuten Promozio Eskuz Banakako Txapelketa berriua. Bilbon izan zen aurkezpena eta bertan izan ziren parte hartuko duten hamasei pilotariak.

Txapelketa guztietan bezala, hemen ere, bada eskualdeko pilotaririk eta kasu honetan, Mikel Olaetxea lizartzarra izango da. Olaetxeaz gain, beste hauek ere izango dira: Asegarce enpresako bederatz pilotari, Argote, Arretxe II.a, Ibai Zabala, Iza, Leiza, Mendizabal II.a, Peñagarikano eta Urrutikoetxea. Eta Aspe enpresakoak aldiz, sei pilotari izango dira; Aritz Lasa, Beroiz, Cabrerizo, Merino, Retegi BI eta Zubieta.

Bi enpresek atzo aurkeztu bazuten ere, Promozio Eskuz Banakako Txapelketa honetako lehen partidak jada jokatuak daude eta badakigu zein pilotari diren aurrera doazenak. Finala, ekainaren 13an jokatu da eta bitartean pilotari guztiak elkarren aurka jokatu



Atzo aurkezpenen izan ziren pilotariak. ASEGARCE

beharko dute. Txapelketako final laurdenetako lehen partida, apirilaren 11n izango da; Retegi BI, Beroizen aurka ariko da.

Zortzi pilotari izango dira bi multzotan banatuta; multzo batean Aspeko bi eta Asegarceko bi izango dira eta beste multzoan berdin. Baina lehenengo falta diren kanporaketak jokatu beharko dituzte. Hala ere, dagoeneko txartela duten pilotariak badaude Aspe enpresan. Retegi BI, Beroiz eta Zubieta final laurdenetako txartelak dituzte eta Asegarcekoen kasuan ordea, kanporaketak jokatu beharko dituzte.

Olaetxea aurrera, Bellosok ezin
Astelenean jokatu ziren bi partiduak Tolosako Beotibar pilotalekuan eta batak aurrera egitea lortu bazuen, besteak ezin izan zuen garapena eskuratu.

Olaetxeak 22 eta 14 irabazi zion Diaz eta Bellosok berriz, Oier Mendizabalen aurka 22 eta 15 galdutuz. Honenbestez, Mikel Olaetxeak txapelketan aurrera egingo du eta Bellosok agur esan dio. Lizartzarrak, apirilaren 3an, Leizaren aurka neurtu beharko ditu indarrak Zarautzeko pilotalekuan eta irabazi egin beharko du aurrera jarraitu ahal izateko.



Koldo Alonso ibararra, podiumera igo zen. HITZA

Alcarras Zirkuituan Alonso hirugarren

Ibarra » Denboraldiko lehen lasterketa izan zen eta Ibarra Racing taldeko Koldo Alonsok, hasiera ezin hobea eman dio.

ERREDAKZIOA

Igandean Lleidako Alcarras zirkuituan aurtengo lehen lasterketa ospatu zen eta taldeak hirugarren postua lortu zuen Supersport mailan.

Rodi-Alcarras txapelketaren barruan zegoen hamar biratako bi txandatan ospatu zen lasterketa. Goizeko entrenamendu krono-

metratuetan 6. sailkatu eta gero, aurreneko txandan Koldo Alonsok seigarren postua berreskuratu behar izan zituen, azkeneko bi biratan hirugarren postua lortzeko. Bigarrenean berriz, irteera ho-beagoa egin eta gero, hasieratik aurreko taldean sartu zen eta bertan 3. postu irabazi ondoren, 3. mantendu zen bukaeraraino eta bigarrenetik oso gertu bukatu zuen.

Igandean, Bartzelonan

Apirilaren 4ean, Bartzelonako Castellolli zirkuituan hasiko den Michelin Power Cup txapelketan izango dira eta «gogoz aurre egiteko» prest joango dira.

Ibarluzea estraditatzeko eskaera aztertze saioa apirilaren 19an

Ibarra » Garikoitz Ibarluzearen abokatuaren eskariz atzeratu da. Fiskalari egoki iruditu zaio eta epaileak onartu egin du.

ERREDAKZIOA

Londresko Westminsterko Magistratuaren Ganberak Garikoitz Ibarluzea ibararra estradita dezan Espainiak Erresuma Batuari egindako eskaera aztertze auzi saioa atzeratu egin du. Gaia, astelenean aztertzekoa zen.

Ibarluzearen abokatuak saioa atzeratzeko eskatu zuen, 2008an Londrestik estraditatu zituzten beste hiru euskal herritarren kasuan Espainiak ez zuela Erresuma Batuko legeria bete argudiatuta. Aurrekari horiei buruzko informazioa bildu eta itzuli ahal izateko eskatu zuen atzerapena abokatuak. Fiskalari egoki iruditu zitzaion eskaera eta epaileak onartu egin zuen. Apirilaren 19rako jarri zuen auziari buruz erabakitzeko hurrengo hitzordua.

Ur hornidura eta Zabor taseen diru-laguntzak

Villabona » Apirilaren 12an 14:00ak bitarte Udalean diru-laguntza eskaerak aurkezteko aukera izango da.

ERREDAKZIOA

Ur horniduraren tasa eta zabor bilketa eta ezabaketa zerbitzuaren tasa ordaintzeko 2010. urterako diru-laguntzak eskatzeko epea zabalik dago eta apirilaren 12an

eguerdiko 14:00ak arte aurkezteko aukera izango da.

Diru-laguntza hau, hileroko diru sarrerak, kontzeptu guztiak barne, Diru Sarrerak Bermatzeko Errentaren berdinak edo urriagoak dituzten eta ohiko etxebizitzaz gain bestelako ondasun higiezin jabeak ez diren familia unitateei zuzendua dago.

Informazio gehiago nahi izanez gero, Villabonako Gizarte Zerbitzuetan edota 943-69 39 25 telefonan jaso daiteke.

Gaur 20:00etan manifestazioa izango da

Leitza » Jon Anzaren heriotza salatzeko mobilizazioak deitu dituzte Nafarroan; Herriko plazatik abiatuko dira.

ERREDAKZIOA


«Gerra zikinenaren eta errepresioaren ondorioak jasan dituzten herritarrek», Jon Anzaren heriotza salatzeko mobilizazioak deitu dituzte Nafarroan. Amnistiaren Al-

deko Mugimenduak bat egin nahi du manifestazio hauekin eta bertan parte hartzeko deia luzatzen die herritarrei.

Hori dela eta, gaur 20:00etan manifestazioa egingo dute plazatik abiatuta. Euskal Herrian «jakitun gara zein diren antzeko gertaren aurrean saltzen dizkiguten bertso ofizialen helburu politikoak. Nafarroa ez da salbuespena, gerra zikinenaren eta errepresioaren ondorioak latzak izan baitira herrialde honetan ere» dio AMM.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko komunikabide batek
Kazetaritzan edota Euskal Filologian lizentziatuak
edo ikasleak behar dituzte
lan poltsa osatzeko.

Interesatuak deitu **687 41 00 32** telefono zenbakira edo bidali curriculum-a **tolosaldean@tolosaldeko hitza.info** helbidera



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoeta/Leitza: 687 410 022. anoetaldea@tolosaldeko hitza.info.
Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leitza/Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO HEDABIDEAK

eta Tolosaldeko eta Leitza/Leitza beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

■ **Tolosa.** Gaur da herritar talde batek autokarabana dutenentzat antolatzen ari den bileran parte hartzeko azken eguna. Interesa dutenek 651-70 83 55 edo 626-21 22 91 telefono zenbakietara deitu behar dute.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Tolosa, M. I. Kale Nagusia, 7. 943 67 06 48.
■ **Leitza.** Campos M. Z. Elbarren, 52. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Aberri Egunera joateko deia egin dute

Aldarrikapena » Anoetan, Adunan eta Tolosan Irun eta Hendaia arteko martxan parte hartzeko gonbita luzatu dute.

ERREDAKZIOA

Apirilaren 4an, Aberri Egunean, bi martxa izango dira Independentistak aldeak deituta. Bata Irundik Hendaia joango da eta bestea, Hendaia-Itzurunera, Bidasoa zeharkatuz. Leloa *Nazioa gara, Estatu behar dugu* izango da eta bi martxak 11:30ean elkartuko dira. Horiek horrela, Adunako Udalak



Anoetan ere Aberri Eguneko martxara joateko deia egin dute. HITZA

Irundik Hendaia joango den martxara joateko 10:00etan plaza bildu eta 10:30ean Zizurkilren tren hartuko dutela argitu du. Era berean, herriko balkoietan ikurri-na zintzilikatzeko deia egin dute.

Anoetako ezker abertzaleak bere aldetik, Aberri Eguna ospatzeko deia egin du, izango diren ekitaldietara joateko gonbita eginaz. Herritarrei ikurri-na balkoietan jartzeko deia ere egin die. Itzuli tabernan daude salgai.

Tolosako ezker abertzaleak ere Aberri Egunera joateko deia egin die «herritar abertzale eta ezkeriar orori». Balkoietan ikurri-nak jartzeko ere eskatu dute.

A Agurrak



Zorionak!

Kontsuelo Agirrebarrena. Zorionak herrikoen partetik!



Zorionak amona Kontsuelo!

Muxu handi bat ta besarkada bero bat Ibai ta Aitorrentzat, etxeko txikien partez. (Lizartza)



HITZAK sarrera pare bat du

**LAGUN ARO GBC
DKV JOUVENTUD**

saskibalo partidarako

Apirilak 4 • Igandea • 12:30ean Donostiako Ilunben



sarrerak

sarrerak eskuratzeko deitu **943-65 56 95** telefono zenbakira **GAUR GOIZEAN!**

ETXEBIZITZA

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO **hitza**



NORBERAREN HABIA

DEKORAZIOA Pertsona bakoitzaren izaeraren araberakoa izan ohi da bizilekua; garaiek, joerek, bizitzeko erak eta beharrek urteek aurrera egin ahala, aldatuz doazen bezala, etxea antolatzeke modua ere egokituz doa.

- TV antenen, banakakoen eta taldekoren instalakuntza eta mantenua
- T.D.T.rako instalakuntza eta egokitzea
- Instalakuntza zaharren berrikuntza eta egokitzea
- Obra beria. ICT normatiba
- Antena parabolikoen instalakuntza
- Portero automatikoen eta bideoporteroen instalakuntza

an tenas
olos

Iurre auzoa 15, behea
20400 TOLOSA
Tf. 943 67 12 31

www.antenastolosa.com • antenastolosa@vodafone.es

Banataile ofiziala

DIGITAL+





Daniel Martinezekin batera muralak ere egiten dituzte Alustiza Margoak-ekoek; argazki batetik abiatuta, marrazki handiak egiten dituzte paretetan, errealitatearen isla direlarik kasu askotan. HITZA

Etxearen apaintketan gero eta garrantzia handiagoa ematen zaie hormei; egun ukitu berezia emateko helburuz, papera berriro ere modan jarri da, baita argazkiak ere; kolore bat edo bestea erabiltzean giro zehatz bat emango zaio aukeratutako gelari.

Hormei bizia eman koloreekin

Etxe bateko hormak, hotz-erengandik, euritik, haizetik, zaratetatik... babesteko balio dute, baina ez horretarako bakarrik. Orain gutxi arte, betebehari hori besterik ez zuten, nortasunik gabeak ziren gure etxeko paretak, hor, ezinbestez egon behar zutenak, baina ezer transmititzen ez zutenak. Orain berriz, paretak, etxeari argia, kolorea, bizia edo goxotasuna emateko gai da.

Etxea apaintzerakoan, askorentzat, erabakiak hartzerako garaian, bigarren mailako elementua izan da horma, baina hau aldatuz doa, eta dauden aukerekin, etxeari nahiz jabearen nortasuna eta gustuak islatzen dituen elementu bilakatu da. Honekin asmatzea, altzariekin, oheekin, nahiz sofarekin asmatzea bezain garrantzitsua da.

Hormen itxurak gainontzeko etxeko elementuak bezala, garaia-oren arabera aldatuz doa. Gela batek, horma ugari izan ditzake, eta orain, azken joeren arabera, horietako bakarrari ematen zaio ardura, gainontzekoak lasai utziz. Alustiza Margoak-ekoek azaldutakoaren arabera, orain ohitura dago, bat izan ezik, gainontzeko hormak grisez margotzeko. Izan ere, honek gela horretako beste elementuen koloreekin jolasteko aukera ematen du. Baita, hutsik geratzen den horma horrekin ere, bertan paper ezberdinak jarri baititzakezu.

Tradizionalaren eta modernoaren arteko borrokan bizi dira apaintketan lanetan ari direnak. Euskaldunak oro har klasikoak garelako diote, baina margoen kontuetan berritzaileena da orain, gure artean gailentzen dena. Jendeak

jada egurra erabili beharrean, aluminioa bezalako materialetara jotzen du, eta ertzetatiko bukatuak desagertu egin dira.

Margoak ere aldatuz joan dira eta orain, margo plastikoak (satinatuak eta mateak) erabili izan dira ere. Egunduz, uretarako esmalteekin margotzen dira horma gehienak eta Alustizak baieztatzen duenez, «oso ongi geratzen dira». Hormak lakatuak bezala geratzen baitira, baina era berean, garbitzeko oso errazak dira. Bestalde, usain gutxiago dute.

Koloreen aukeraketa

Koloreak, hotzak, beroak, biziak, goxoak... bezala deskribatzen dira. Hala, leku bati eman nahi zaion giroaren eta berezitasunaren arabera aukeratu behar dira hauek. Kontuz ibili behar da koloreen erakusgaia hartzean, bertan ikusten dena, gehienetan, ez baita gero horma margotzean geratzen den emaitzaren bera. Horregatik, Alustiza Margoak-ekoak saiatzen dira bezeroak kolore bat aukeratzeko duenean, hainbat froga eginez, horren berdinena geratuko dena aurkitzen.

Hormetarako zein kolore erabili nahi diren erabakitzerako, altzaria aukeratzeko gomendatzen du Alustizak. Izan ere, «altzariak urte gehiagoko iraupena dute normalean. Hormaren kolorearekin nahastuz gero edo aspertuz gero, errazagoa da aldatzen».

AZPIROZ ZUBILLAGA, S.L.
Eraikuntzak

Kale Nagusia, 8 - 3 20492 BERASTEGI (GIPUZKOA)	943 68 34 48 (bulegoa) 943 68 32 53 (fax) 670 89 01 13 (mugikorra) azpiroz Zubillaga@telefonica.net
--	--



Gelaren arabera kolorea aldatu egiten da normalean. Etxe batean sartzean, gela komunak deitzen direnak izaten dira. Hau da, sarre-
ra, pasilloa eta egongela. Hauetan, giro bera zabaltzeko edo, modu berdinean margotzea da ohikoe-
na, nahiz eta zenbait bereizgarri ere erabili. Toki batetik bestera igarotzean kontraste handiegirik eman ez dadin egiten da hau. Gelak berriz, norberaren erara egitea da joera.

Paperaren itzulera

Modak zikloka itzuli egiten direla diote, eta orain, neurri batean, paperarena itzuli da. Ez da lehen bezala, baina berriro hemen da. Due-
la urte batzuk, gela osoa paper berdinarekin estaltzen zen, egun berriz, ukitu berezi bat emateko

Hormetako kolorea erabakitzerako, altzariak aukeratzea komeni da; hauek luzerako baitira

Papera ukitu berezi bat emateko erabiltzen da; horregatik ez da edozein hormatan jartzen

erabiltzen dira. Prezio ezberdinak dituzte paper hauek, eta margolan bereziak, esaterako, oxidazioak eta imitazioak egitea baino merke-
ago ateratzen dira, oro har.

Papera jartzeko aukeratzen den horma ez da edozein izaten. Loge-
len kasuetan, oheburuaren atzean jartzea da egokiena. Egongeletan berriz, sofaren edo altzariaren atzean.

Mota eta estilo ezberdinetako paperak daude. Esaterako, batzuk, zikinduz gero, trapuarekin garbitu daitezke. Bestalde, ona baldin bada, etxea berriro margotu arren, bere horretan utzi daiteke papera, honek iraupen luzea baitu. Alustiza Margoak-ekoen esanetan apaingarri hauen artean, aukera oso zabala da. Ohiko marrak eta koloreez gain, argazkiak ere erabili daitezke horretarako. Etxearen jabeak gustuko duen argazki bat handitu dezake eta horma bat bali-
tuz bezala jarri. Azken batean, atentzioa ematea da paperaren lana.

Argazki bat horma bihurtuta

Teknologien aurrerapenak denean du eragina, baita dekorazioan ere. Azken modaren arabera, argazkiak horma bihurtu daitezke. Interesatuek argazkia zein hormetan eta neurritan jarri nahi duten erabakita, serigrafia etxeetan egin daiteke. Margolariak erabiltzen dituzten paper berezietan egiten dute hau, eta Alustizaren hitzetan, «irudiaren kalitatea oso ona izaten da». Horrelako bat egitea, horma osoa estaliz, batzuetan 500 euro kostatzen da. Argazkilariek ere egin dezakete hau, baina erabiltzen duten materiala edo papera ez da berdina.



Gelei ukitu berezi bat emateko, egun papera erabiltzea modan dago; gelako hormetako batean jartzen da hau, eta gainontzekoak margotu egiten dira. HITZA

TXURI-BELTZEZ JANTZITA

Altzariak » Egun egongelako elementu nagusia sofa da, eta logelakoa, berri, armairu; horien arabera antolatuko dugu etxearen diseinua.

Ereza diseinatzerakoan azken jorak kontuan hartu nahi baditugu kolore txuri-beltzak edota hautu kolorea aukeratzeko dugu, lakatuekin batera. Aitzitik, egun kolore tradizionala geroz eta gurtzago ikusten da.

Joerak, baina, ez dira betirako izaten. Basoko altzarietako Jaime Garcesek dioen bezala, «2-3 urteko kontua izaten dira, gero pizkaka aldatur daoz». Zikloak ere badira, izan ere, egun beltza dela kolore izarra esaten dugu, baina halazera duela 20 urte ere, eta tarte horretan guztian ez dugu beltzik ikusi.

Baldan dagoen zerbitu, ordea, ez da erraztasun berdinarekin sar-tzen leku guztietan. «Euskal Herrian, oro har, nahiko tradiziona-lak gara, azken urteetan berriren asko ari garen amone». Horregatik, berrikuntzekin ulitu tradizio-nak nahastea asoegin dugu, «oda-bait esateko erosago sentiarazten gaitu».

Egongelako kolorean pentso-tzen hasi baino lehen, nolako sofa nahi dugun hartuko dugu kon-

nuan, «elementu handiena delako, eta askotan garrantzitsuena ere bai, desbera isko egoten bailara sofa gainean eserita edo etzanda». Behin gustukoa aukeratu dugunean horren arabera hasiko gara kolore eta altzariak aukeratzeko.

Logelaren kasuan, armairua da elementurik garrantzitsuena, «handia izatea nahi baitugu, ar-ro-pa asko gude ahal izateko». Ohean-erantzak litzateke azpimarra-tzeko bigarren elementua, eta he-mena, serigrafia, argizkiak, katek eta led argiak bezalakoak ohiko bi-lakatu dira. «Dena den, egongela-rekina alderatuta, bigarren mailan dago logela, ez baita elementu ko-muna, eta horregatik ez da nota al-tua ateratzeko etseko zonaldean».

Altzari handien errepertarioa zi-tzian lehen, eta zuten neurritan ar-bera antolatzen zen ia guztia. Egun, berri, nekaz ikusiko ditugu horrelakoak. Beharren eta joroen arabera, etxe antolatzeo modia asko aldatu da. Iraupen zehatzik ez dute beldurak dira, eta gustatu ala ez, lehenago ala beranduago betiristen dira gurera.



Txuria eta beltza asko ikusten dira azkenaldian. Egura bezalako ulitu tradizionalak ere oso gustuko ditugu.

BASOKO

larrea auzoa s/n poligono 34, 2
20150 billabona gipuzkoa

**Aholkularitza
Dekorazio proiektuak
Gremioen koordinazioa
Erreforma proiektuak**

www.muebles-basoko.com

«Etxebizitza neurrira egin ahal izateko bezeroaren bizitzaz jakin behar izaten dugu»

JAIME GARCES » Basoko altzarietako arduraduna

Diseinua » Geroz eta jende gehiago nahi izaten du etxe berria erostean edo zaharberlizerakoan diseinua egitea.

Egongelak, behku nahiz gureto-entzako gelak, koltsoiak eta ahar dituzte salgi Basoko altzarietan, eta etxe, taberna eta berretako diseinatu eta eraberritzeo proiektuak ere eginen dituzte. Jaime Garces da bertako arduraduna, urte etako eskarmentua du, eta «oso gustuko» da bere lana.

Jendeak argi izaten al du nolako etxebizitza nahi duen?

Batauk oso argi izaten dute eta ha-lorua eta nolako altzariak nahi di-tuzten erabakita izaten dute. Beste batzuek, berri, ez dute ideiarik izaten, beraz, kolapen orokorra egin-gez hasten gara. Aurrekontua ematen diegu, eta onartzen badute hori lantzen hasten gara, etxer-jo-nez, neurriak hartuz eta proiektu-a eginez.

Era guztietako proiektuak egiten dituzte.

Etxeotarako egiteaz gain, taberne-



Bartzelonara joaten naiz hango jo-eren berri izatera eta Valentzia eta Afiliako szezalera ere bai. Milio-nik hona urtebetera edo iristen dira berrikuntzak. Esan beharra dago gu azkeneko artzaki gurela horretan, klasiko samarrak baika-ra. Baina azken lau edo bost urte-tan ari gara berriren pizkakanak. Melanina, esaterako, lehen ere go-muen ikusi ere egin nahi, baina orain zabalduz doa.

Erreza al da bezero bakoitzaren araberako etxea diseinatzea?

Bezeroaren bizitzan sartu behar dugu etxea bere neurrira egiteko. Bere zakatasunak, bizitzeko mo-dus, beharrik... ezagutu behar di-tuz. Diseinatzean, hasieran nor-malean desalotasun lan dituguk egoten dira, bezeroaren eta gure artean, baina, lanean aurrera ga-zela pizkakanak gure kontura uzten josten dira. Dekorazioa gustuen araberakoa izan daiteke, eta guz-tioi ez zaizkigu gauza berdinak gustatzen, baina guk esperientzi-az hitz egiten dugu, hau da, bakoit-gu gauza batondo garrantzidokela beste zerbitzuekin, lehenagotik ikusi du-gulako. Horregatik, gurekin fil-d-ton dira uzten bezeroak.

Polita izango da jendearen bizilekuak diseinatzea.

Oso polita da. Bilerak egitea jende-koekin gastearen zati, elkarrekin hitz egitea eta eztabaidatzea diei-nuaren inguruan. Azkenean, bi al-deen arteko adostasunekin osat-zen da etxearen diseinua.

tarako, dendetarako... ere eginen ditugu. Geroz eta gehiago eska-tzen dugu jendeak.

Etxebizitzan antolatzea asko a-datu da urteen poderioz.

Bai. Lehen jangela, esaterako, be-harrezkoa zen, eta egongela ez-haitbeste, gelak, berri, handiak

ziren. Orain, egongela da handia, eta gelak eta sukaldeak txikiak. Jan-gela, berri, desagertu dela esan daiteke. Espazio txikiak ere ikus-ten dira, egun, baina ez hainbeste, oso berezia baita.

Nota jakiten duzue zer dagoen moda?



Egura beti ikusten den elementua da, azkenaldian gutxiago ikusten den arren.



Sofa da egongelako elementu garrantzitsuena eta horren arabera antolatuko dugu gainerakoa.



Lehen ez bezala, egun altzariak txikiak izan ohi dira.



Nondik hasiko gara eta zer hartu-ko dugu kontuan?

Sukaldean edota bainugelan, es-terako, azulejok aukeratzeko di-nugu lehenabizi. Materiala eta kolore nahiko neutroak jartzea izaten da rite gromadiko, kolore zaltzar-keratzen badugu, gero ez baita hain erraza izango ondo datorkion altzaria aukeratzea. Pinturarenkin, aldi berez, kolore biziak sar daiz-ke, gerora aldatu baitezakegu, bai-na sofa, aldiz, ez da erraz aldatzen dugu zer baita. Esaterako, oso mo-dan dago argizkiak-eta jartzea ps-teraren batean edota atetan. Ho-rrak ulitu berezia ematen dilo, eta erraz alda dezakegu. Pinturaz-ean ere konan hartu dugu zer nahi dugu nabarmendu, beste guztia laster berresetzen jarri.

Eta argiztapena?

Oso garrantzitsua da. Suilik beha-rrizko den lekuetan jarri behar da, eta behar denetan arloberko-ak. Sukaldean behar dugu argia, bai-nuan ere bai, baina egongelan eta logelan, ez hainbeste, eta argi ha-xuakok jar ditzakegu. Logelan, es-terako armairuetan dira erabi-garriren. Azken aldiari kolorezko argiak ere ikusten hasi gaitu.

Polita izango da jendearen bizilekuak diseinatzea.

Oso polita da. Bilerak egitea jende-koekin gastearen zati, elkarrekin hitz egitea eta eztabaidatzea diei-nuaren inguruan. Azkenean, bi al-deen arteko adostasunekin osat-zen da etxearen diseinua.

Argi gehiegi hotz geratzen omen da, gutxi berriz ilunegi. Nola jakin orduan zenbateraino argiztatu behar dugun gure etxea? Gakoa zera da, behar den lekuan, erabileraren arabera argia jartzea. Duela urte batzuk gelaren neurriak hartu, eta horren arabera jartzen zituzten argiketariak lanparak, gehienetan, erdi-erdian kokatuz. Orain berriz, alde estetikoaz gain, beharrak hartzen dira kontuan.

Inaxio Aranaldek, Ibarra argi-lanak-eko nagusiak 40 urtetik gora daramatza alor honetan lanean eta badaki jakin, etxe batean argikuntza «oso garrantzitsua» dela.

Argi kopurua, gelaz gela

Etxe bat berria egitean eraikitzearekin batera egiten dira kable instalazio guztiak. Ibarra argi-lanak-ekoek, etxeen jabeekin hitz eginaz eta araudia jarraituz egiten dute instalazioa. Eskarmentu handia dutenez, gomendioak ematea ere askotan egokitzen zaie.

Etxeko gela bakoitzak erabilpen zehatz bat du, eta horren arabera argiztapena ere aldatuz doa. «Sukaldean, esaterako, argi asko izatea komeni da. Bertan, lanean, hau da, sukaldatzen aritzen baikara, eta baita jaten ere». Horregatik, Ibarra argi-lanak-eko nagusiak kontsumo baxuko argi biziak jartzea gomendatzen du.

Gaur egungo bizitzeko moduagatik, egongelan ere denbora asko igarotzen da. «Sofan jarrita telebistaren aurrean egoteko, ordea, ez da argi gehiegi behar. Hori dela eta, argi gutxiarekin ongi molda daiteke bertan», dio Aranaldek. Argi graduatzaileak jartzeko toki egokia da egongela. Hauen bitartez, norberak aukera dezake argiztapenaren neurria. «Bestalde, ordu askoz pizturik egongo direnez, kontsumo baxukoak erabiltzea komeni da».

Logelaren kasuan, zonaldearen arabera ezberdintasunak daude, erabilpen nagusien artean, lo egitekoa eta janztekoa baitaude. Honenbestez, «ohearen inguruan ez



Komunean argi biziak behar ditugu, eta normalean asko jarri ohi dira.

Etxeko gela bakoitzaren erabileraren eta beharren arabera banatuko ditugu argiak instalazioa egitean; beraz, sukaldean eta komunean argi biziak jarriko ditugu, eta logelan eta egongelan, berriz, argi baxuak.

Argia, bere tamainan

da argi gehiegi behar, baina bai, armairuaren ondoan, zein arropa aukeratu hobeto jakiteko eta nola geratzen den ere ongi ikusteko».

Sukaldearekin batera, bainugela da, argiztapen handia eskatzen duen etxeko txokoa. Azkenaldian egiten diren etxeek barnealdeko bainugela izaten dute, eta honen ondorioz, argi gehiago jarri behar izaten dira. Inaxio Aranaldek dioenaren arabera, «bainugelan denbora gutxi igarotzen badugu ere, oso garrantzitsua da hemen argi biziak eta asko jartzea».

Hobe soberan faltan baino

Lanparak ordezkatzuz halogenoak dira egun gehiago erabiltzen direnak, batez ere, argi handia behar dugun lekuan. «Erosoagoak izan daitezke lanparak eta jendea iri gehiago gustatzen zaizkio argi polilagoa dutelako, hori bai, kontsumo handiagoa izan dezakete». Dena den, argi mota guztietan dago aukera gaur egun kontsumo baxuko argiak erabiltzeko.

Nolako argiztapena behar eta nahi dugun hartuko dugu kontuan, beraz, instalazioa egitean, eta baita non eta zenbat entxufe beharko ditugun. «Egun, etxebizitza arrunt batean, 30-40 entxufe jartzen dira, batez beste», azaltzen du Aranaldek. Halaber, faltan baino hobe da soberan izatea, etorkizuneko agian beharko dugulako, eta jartzea zailagoa izango zaigulako.

Argi instalazioak ez ezik, musika sareak edota telebistarenak ere jartzen aritzen dira Ibarra argi-lanak-en. Diotenez, geroz eta gehiago jarri ohi dira musika sareak etxeetan. Etxeko gela guztietan edota norberak aukeratzeko duen txokoa jartzen dituzte bozgorailuak. Horrekin batera, telebistaren eta telefonoaren kableen instalazioa ere hartu beharko dugu kontuan, «instalazioak epe luzean izaten baitira». Horretan ere gehiago pentsatzen da gaur egun, eta instalazioaren hoditerian lekua utzi ohi da aurrera begira edozein motako kablaren bat erraz sartu ahal izateko.



Sukaldean ere argi biziak jarriko ditugu, beharrean egoten baikara bertan.



Egongela argi baxuak jartzeko etxeko guinea da.

E Elkarrizketa

AGUSTIN PAGOLA › Pagola Eraikuntzak-eko nagusia

«Merkeena aukeratzeak ondorioak ekartzen ditu»

Hirigintza › Pagola eraikuntzak-ekoak teila mistoa erabiltzen lehendabizikotakoak izan ziren; horregatik, teilatuak beraien berezitasuna dira.

ERREDAKZIOA

Etxe bat teilatutik ez omen da behin ere hasi behar, baina etxeko teilatua ongi izatea, oso garrantzitsua da, bestela honen kalteak erai-kuntzak lantegiko nagusia, eta hogoie urtetik gora daramatza lan honetan.

Zein da zehazki zuek egiten duzuen lana?

Gure berezitasuna teilatuak dira. Honez gain, birgaitze lanak ere egiten ditugu, eta etxebizitzaren aurrealdeak konpondu, sabaiko leihoak jarri...

Teilatu batek zenbat urteko bizia du?

Duela 25 urte jarri genuen lehendabiziko teilatua, teila mistoarekin. Orduan, teila mota hau erreferente bat zen, berria baitzen, eta hemen ikusi gabea. Hau Zeramikazkoa da. Alde batean arabiarrak bezala kurbatura du eta beste alde berriz laua du. Teila horrek 30 urteko bermea du, eta esaterako, lehen aipatutako kasuan, oraindik ez du arazorik eman jarritako teilatuak.

Egun, zein teila mota jartzen da normalean?

Egun mistoa jartzen da. Izan ere, bestea, arabiarra, errepide ondoan baldin badago etxea, lehenago edo beranduago mugituz jouten da. Zeramikak gehiago irauten du, hau baita indartsuena.

Jendea zorrotza al da teilatuen kontuarekin?

Oro har, bigarren konponketan dira zorrotzak. Hasieran, aurrekontuak eskatzean, hauetatik merkeena aukeratzera jotzen da. Baina honek ondorioak ekartzen ditu. Merkeen egiten duena aukeratzuz gero, epe laburrera, hiru edo lau urtera, arazoak izaten dira askotan, ura sartzen delako, teilak mugitu direlako... Horregatik, askotan hauen atzetik ibiltzen gara gero. Guk lana ongi egiten dugunaren seinale da, esaterako, ziklogenesia igaro arren, guk jarritako teilatuen inguruko deirik ez dugula jaso.

Zuk, Frantzian ikasi zenuen teilatuak jartzen.

Bai, oro har, hemen, igeltseroek jartzen zituzten teilatuak, eta hauek, teilak eusteko morteroa erabiltzen zuten. Frantzian berriz, arotzek egiten zituzten, eta morteroa erabili beharrean, kako eta gabilekin lotzen zituzten. Honebestez, ni hara jouten nintzen ikasteko, eta lehorreko muntaia deitzen zaiona egiten hasi ginen.

Zeintzuk dira lehorreko muntaia horren abantailak?

Honekin lortzen dena da, teila ongi helduta egotea, baina aldi berean dilatatu daiteke.

Noiz dakigu teilatu bat aldatu beharra dagoela?

Normalean, azken solairuan bizi dena ohartzen da horretaz, berari hasten baitzaizkio lehen itoginak. Horren aurrean, gehienetan, petatuak jartzen hasten gara, baina hauek gero eta gehiago direnean, ezinbestean, teilatu guztia aldatu beharra dago.

Zenbaterainoko kalteak ekarri ditzake garaz teilatua ez konponetzeak?

Gero eta itogin gehiago baldin badaude, azkenean, egitura usteltzen hasten da, eta gastua handituz doa. Egia da, egurrak gehienetan urte askotako iraupena duela, baina gertatu daiteke.

Tolosako etxebizitza askoren aurrealdeak ere konpondu dituzue, ezta?

Bai, lan horretan ere aritzen gara. Etxebizitzaren aurrealdeak zahar-tuak daudenean, hauek margotu, txukundu eta berritzeaz arduratzen gara.

Sabaieko leihoak ere jartzen dituzue.

Atiko askotan paretean ezin izaten dute leihorik ireki, hori dela eta, argitasuna sartzeko oso egokiak dira sabaieko leihoak. Gero eta gehiago jartzen dira horrelakoak. Atiko handi bat izanez gero, eta argitasuna behar baduzu, hau da irtenbidea.

Mantenu lanik eskatzen al dute?

Bai, baina ez handiegia. Torlojuetara lotuta daude eta hauek bi edo hiru urtez behin estutu behar dira,



E. EZEIZA



Teilatuak dira Pagola eraikuntzak enpresaren berezitasuna; irudian, Hondarribian egindako obretako bat. HITZA

urik ez sartzeko, baina besterik gabe.
Zeintzuk dira, sabaiko leihoen abantailak?

Oro har, jendea oso gustura dago. Etxea argiztatzeko nahiz aireztatzeko oso egokiak dira. Gainera, gaur egungoak oso ongi prestatuta daude, eta elektrikoak dira asko. Beste batzuek berriz, euria eta haizea nabaritzen duten sentsoreak dituzte.

Honek arazoren bat emanez gero nora jo daiteke?

Lehendabizi gugana jo dezakete bezeroek. Ordezko piezaren bat behar badu guk biltegiara eskatzen dugu. Bestalde, arazoa teknikoa baldin bada, leihoak egiten dituen enpresak berak pertsona bat dauka honetan aditua dena eta konponketak egiten dituen.

Zuen lana arrisksua da, ezta?

Bai, nahikoa. Horregatik segurtasunari garrantzia handia ematen diogu. 2000. urtean erdi mailako lan segurtasuneko agiria jaso genuen.



Letxu kaleko etxebizitza baten aurrealdea berritu dute Pagola-koek. E. EZEIZA

E | **Elkarrizketa**

ENERITZ ALTUNA > Etxesagasti higiezin agentziako arduraduna

«Gaur egun eskaera badago, baina bezeroen aurrekontua murriztu egin da»

Salerosketa >> Etxebizitza erosteko unean finantziarioa da egun arazo handiena; jendeak, normalean, argi izaten du non eta nolako etxebizitza erosi nahi duen.

Etxebizitzen prezioak asko jaitsi dira azken hilabeteetan krisiaren eraginez. Eneritz Altuna Villabonako Etxesagasti higiezin agentziako arduradunak prezioak mantendu egingo direla uste du, hau da, ez direla gehiegi jaitsiko. Dena den, erosteko une polita da bere ustez, «prezioagatik eta negoziatzeko aukera dagoelako».

Zein da etxebizitzen salerosketaren egoera gaur egun, une oporak eta zailak igaro ostean?

Gaur egungo egoera zaila dela esan dezakegu, baina, badirudi merkaturak pixka bat mugitu egin dela. Eskaera badago, baina bezeroek dituzten aurrekontuak murriztu egin dira, dagoen eskaerara moldatu beharra dago, eta merkatuak ere moldatu egin beharko du. Dagoen arazo nabarmena finantziario arazoa dela esan daiteke, eta banketxeak dira merkaturak geldiarazi dutenak mailegu murrizketarekin.

Zein motako etxebizitzak eskatzen ditu jendeak egun? Aldatu al da hori denboran zehar? Zertan nabari da gehien?

Eskaera handiena etxebizitza ekonomikoena da, batez ere jende gazteen artean. 180.000 euro edo gutxiagoko etxebizitzak eskatzen dizkigute, asko jota 210.000 eurokoak. Denboran zehar nabarmen aldatu da, lehen jendeak ez zuen aurrekontua hain finkatuta. Etxebizitzak ikusten zituazten eta gustukoena erosten zuten banketxeek neurrigabe maileguak ematen baitzituzten ia edonori. Baina, hori zeharo aldatu da: orain mailegua emateko garaian ordaintzeko gai izango direla asko ziurtatzen dira.



HITZA

Lehen etxebizitza ikusi eta gero banketxera joaten zen jendea mailegua ematen zien jakiteko, orain ordea, alderantziz izaten da.

Prezioak gehiago jaitsiko direla uste al duzu?

Prezioak jaitsi egin dira eta jendeak negoziatzeko joera handia du. Hala eta guztiz ere, denetik ikusten da, saltzeko presa duena negoziatzeko prest dago, noski, itxaron dezakeenak, ordea, prezioa man-

tentzen du. Gure ustez joera mantentzekoa izango da.

Zer egiteko garai ona da gaur egun, erosi ala saldu?

Egun erosteko une ona da, prezioari dagokionez, etxebizitza interesgarriak topa daitezkeelako. Saltzeko, berriz, ez da garai onena, merkaturak etxebizitza asko baitaigo salmantan eta kompetentzi handia. Dagoen eskaintza eskaera baino handiagoa da une honetan.

Alokairuan ba al dago eskaintza? Eta eskaera? Handituz al doa alokairuan bizi direnen kopurua?

Alokairuan dagoen eskaera lehen zegoen berdintua da. Orain, agian, gazte gehiago animatzen dira alokairuan bizitzaren jartzera, Gobernuak ematen duen 210 euroko diru laguntzarengatik. Eskaintza agian handiagoa da, etxebizitza ezin saldu dabilzanak alokairuan jarri dutelako. Gainera-

koan ohiturak antzekoak izaten jarraitzen dutela uste dugu.

Jendeak argi izaten al du nolako etxebizitza nahi duen?

Normalean gutxi gorabehera jendeak jakiten du zer nahi duen, nahiz eta batzuetan ideia bat eduki eta gero kontrakoa duen etxebizitza erosi; esate baterako, gogoan dut nola bezero batek ideiak oso garbi zituen, hormigoizko etxea nahi zuen, igogailua eta terraza eder batekin, eta azkenean, gustatu zitzaion etxebizitza guztiz kontrakoa zen, egurrezko egitura, igogailurik gabekoa eta terraza gabea.

Zeri ematen zaio garrantzia gehien? Herriari, etxearen kokapenari edota etxeari berari?

Etxebizitzaren ezaugarriak baino gehiago bezeroek argi eta garbi dutena non erosi nahi duten da. Jendeak, batez ere, herriari ematen dio garrantzia. Agian ez dute oso zehatz jakiten zein herriari nahi duten, baina badakite non ez duten nahi. Gero, egiturari begiraten zaio, hau da, egurrezkoa ala hormigoizkoa den, eta baita igogailua duen ala ez. Baina, batez ere, prezioari ematen dio garrantzia jendeak.

Zein da zuen egitekoa saltzeaz gain?

Etxebizitza bat salmantan jartzen denean lehenbizi balorazio bat eta azterketa bat egitea gustatzen zaigu, eta bezeroari zenbatean saldu daitezkeen aholkatu. Orduan, eskabide-zorroan ditugun bezeroei eskaintzen diegu, iragarkiak egin, bitartekari lanak, negoziaketa lanak, eta behin akordio bat dagoenean, dokumentazioa prestatu, bankuekin hitz egin, Notaritzako paperak prestatu...

"RENOVE" PLANA DIRU-LAGUNTZA

Tfnos. 943 673611
www.zuhaizki.com



harria gresak

bainugelen barne apainketa

www.harriagresak.com
beto@harriagresak.com

Zelaeta, 1
Beasain (Gipuzkoa)
Tel.: 943 885 466
Faxa: 943 161 975

Emeterio Arrese 7
Tolosa (Gipuzkoa)
Tel.: 943 24 52 00
Faxa: 943 24 37 94

